



OLATZ GARAMENDI LANDA ANDREAK, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA JAURLARITZAREN IDAZKARIAK

ZUIRTATZEN DUT:

Gobernu Kontseiluak 2022ko azaroaren 22an egindako bilkuraren aktan jasota dagoela, besteak beste, honako erabaki hau onartu zela:

ERABAKIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAN DIHARDUTEN LANGILEEN ORDAINSARIEN % 1,5EKO IGOERA GEHIGARRIA 2022. URTERAKO ONARTZEKO. (2022/01208 ESP.) (A/20220474)

Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legeak ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan diharduten langileen ordainsariak.

19.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe sektore publikoan diharduten langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarritzko xedapenak, 2022. urtean, lan-kontratudunak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guztizko ordainsariek ezin izango dute % 2tik gorako hazkunde orokorrik izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenez. Ordainsari horiek, betiere, homogeneotasunaren arabera kalkulatu dira, erkaketaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari eta antzinasunari dagokionez, bai lanaldi-araubideari dagokionez.

19.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, aurrekontu-ekitaldian zehar indarrean daudenak izango dira lan-kontratudunak ez diren langileek jaso beharreko oinarritzko ordainsariak, bat etorritik funtzionarioen oinarritzko ordainsarien araubidea erregulatzen duten arauekin. Langile lan-kontratudunei dagokionez, 19.9 artikulua arabera, 2022an soldata-masak gehienez % 2ko igoera izan ahal izango du 2021eko ekitaldirako ezarritakoarekiko.

19.13 eta 19.14 artikuluek igoera bera ezartzen dute lehendakariaren, kontseilarien, goi-kargudunen eta parekatuen ordainsarietarako, bai eta behin-behineko langileen ordainsarietarako ere.

22.1 artikulua igoera bera aurreikusten du Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako, sozietate publikoetako, fundazioetako eta sektore publikoko partzuergoetako zuzendarien ordainsarietarako.

Gobernu Kontseiluak 2022ko otsailaren 22an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, baimena eman zen, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, % 2ko ordainsari-igoera aplikatzeko 2021eko abenduaren 31n ezarritako



ordainsariekiko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, organismo autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sektore publikoko partzuergoen zerbitzuan diharduten langileentzat, bai eta lehendakariarentzat, sailburuentzat, goi-kargudunentzat eta parekatuentzat, behin-behineko langileentzat eta zuzendaritzako langileentzat ere. Halaber, baimena eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako erakundeen zerbitzuan diharduten langile lan-kontratadunen soldata-masa % 2 igotzeko 2021eko abenduaren 31n ezarritakoarekiko.

Arestian aipatutako igoerak sektore publikoan diharduten langileen gastuei buruz ematen diren oinarritzko xedapenei kalterik egin gabe egin behar dira. Zehazki, aintzat hartu behar dira 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legean araututako aurrekontu-araudia eta urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretua, zeinaren bidez onartzen baitira energia-kontsumitzaileen babesa indartzeko eta gas naturalaren kontsumoa murrizten laguntzeko neurriak, "Plan + seguridad para tu energía (+SE)" plana aplikatzearen ondorioz, bai eta sektore publikoan diharduten langileen ordainsariei eta lehorreak kalte egin dien nekazaritzako behin-behineko langileen babesari buruzko neurriak ere. Errege lege-dekretu horrek, 23. artikuluan, oinarritzko izaeraz ezartzen du ezen, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen III. tituluko I. eta II. kapituluetan eta horiekin bat datozen gainerako manuetan xedatutakoaz gain, sektore publikoan diharduten langileen ordainsariek ehuneko 1,5eko igoera gehigarria izango dutela 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Igoera gehigarri hori 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, arau hauen arabera:

1.– 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, eta, beraz, bi igoeren baturak % 3,5eko gehieneko ordainsari-igoera orokorra finkatuko du 2022ko ekitaldirako.

2.– 2022ko azaroko nominan gauzatuko da, eta atzerapen gisa ordainduko da aurtengo urtarriletik urrira bitarteko hilabeteei dagokien igoera.

3.— Autonomia erkidegoen eta toki-erakundeen kasuan, ordainketa 2022ko abenduaren 31 baino lehen egin beharko da, eta, edonola ere, 2023ko martxoaren 31 baino lehen.

Bestalde, 2022ko urriaren 21ean egindako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean aztertu da aipatutako igoera, gaitzerrendako puntu honetan: «Langileei eta 2023ko negoziazio kolektiboari buruzko aurrekontu-esparrua, EAeko aurrekontu orokorren lege-proiektuan».

Azkenik, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 5.1.g) artikuluan ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten funtzionarioen ordainsari-araubidea eta gainerako langileen ordainsari-baldintzak ezartzeko arauak eta jarraibideak urtero ezartzea.

Horregatik, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio, hark onar dezan, sektore publikoan diharduten langileen ordainsarien % 1,5eko igoera gehigarria, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera. Igoera hori eta aurretik onartutako % 2ko igoera batuta, guztira % 3,5eko igoera egiten du 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

Hori guztia dela eta, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez gaia eztabaidatu ostean, Gobernu Kontseiluak hau erabakitzen du:

ERABAKIA

«Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan diharduten langileen ordainsarien % 1,5eko igoera gehigarria onartzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera. Igoera hori eta aurretik onartutako % 2ko igoera batuta, guztira % 3,5eko igoera egiten du 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

Bigarrena.– Honako oinarritzko ordainsari hauek jasoko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionario eta estatutupeko langileek:

a) 2022ko urtarriletik abendura bitarteko nomina arruntetan, soldata eta hirurtekoengatik, hamabi hilabeteri dagozkien honako zenbateko hauek:

Taldea/ Azpitaldea	Soldata (euroak)	Hirurtekoak (euroak)
A1	15.082,68	580,56
A2	13.041,72	473,40
B	11.400,24	415,32
C1	9.792,12	358,32
C2	8.149,80	243,96
A	7.459,20	183,60

b) 2022ko ekaineko eta abenduko aparteko paga bakoitzean, soldata eta hirurtekoengatik, honako zenbateko hauek:

Taldea/ Azpitaldea	Soldata (euroak)	Hirurtekoak (euroak)
A1	775,61	29,86
A2	792,63	28,76
B	821,10	29,93
C1	705,28	25,78
C2	672,96	20,12
A	621,60	15,30

Hirugarrena.– Honako hau izango da lanpostu-maila bakoitzean 12 hilekori dagokion destino-osagarriaren zenbatekoa 2022 urtean:

Maila	Urteko zenbatekoa (euroak)
30	18.926,64
29	16.823,40
28	15.036,00
27	13.353,72
26	11.776,68
25	10.199,64
24	9.568,68

23	8.885,40
22	8.254,32
21	7.623,84
20	7.098,24
19	6.677,40
18	6.256,92
17	5.888,28
16	5.520,60
15	5.152,68
14	4.784,88
13	4.416,48
12	4.048,80
11	3.680,76
10	3.388,44
9	3.145,32
8	2.950,56

Laugarrena.– Honako hau izango da Ertzaintzako kategoria bakoitzean 12 hilekori dagokion destino-osagarriaren zenbatekoa 2022 urtean:

Maila	Urteko zenbatekoa (12 m)
1	7.625,40
2	8.572,56
3	9.006,36
4	11.672,28
5	12.590,52
6	14.622,24
7	15.490,32

Bosgarrena.– 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, funtzionarioen gainerako ordainsari osagarriak, halaber, % 3,5 igoko dira 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko. Hala ere, aldaketa batzuk egiteko modua izango da programa bakoitzari atxikitako langile kopurua aldatzearen ondorioz, programari ezarritako helburuen betetze-mailaren ondorioz eta programa aplikatzearen banakako emaitzen ondorioz.

Seigarrena.— 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, hauek izango dira lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta parekoen ordainsariak:

	Soldata Hilabetea (euroak)	Ordainsaria, guztira (euroak)
LEHENDAKARIA	7.893,96	110.515,44
LEHENDAKARIORDEA	7.412,55	103.775,70
SAILBURUA	7.036,84	98.515,76
SAILBURUORDEA	6.368,50	89.159,00
ZUZENDARIA	5.430,58	76.028,12
COJUA-KO KIDEA	5.430,27	76.023,78
LEHENDAKARI PENTSIODUNA	3.946,99	55.257,86
SAILBURU PENTSIODUNA	3.518,44	49.258,16

Zazpigarrena.— 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, % 3,5 igoko dira behin-behineko langileen ordainsariak 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, hargatik eragotzi gabe antzinasunagatik egokitu dakiekeena.

Zortzigarrena.— Justizia Administrazioan diharduten langileen ordainsariak berariazko araudian xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Bederatzigarrena.— 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, % 3,5 igoko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, haren organismo autonomoetan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoan diharduten langile lan-kontratudunen ordainsariak 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Hamargarrena.— 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako entitateen zerbitzuan diharduten langile lan-kontratudunen soldata-masak ezin izango dira % 3,5 baino gehiago igo 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa da 2022ko soldata-masaren gehieneko muga, zeina negoziazio kolektiboaren bidez erabakiko baita nola banatu eta aplikatu modu indibidualean.

Hamaikagarrena.— Osagarri pertsonalak eta iragankorrak, baita zerbitzuarengatiko kalte-ordainak ere, beren araudi espezifikoaren arabera arautuko dira, eta, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, horien zenbateko indibidualak ezin izango dira % 3,5 baino gehiago igo 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Halaber, ordainsari-kontzeptu batzuk erabaki honetan xedatzen denetik salbuetsita geratuko dira, baldin eta haien araubideak, aplikagarri zaien araudiari jarraituz, baztertzen badu ordainsari-igoera orokorraren bidez eguneratzea.

Hamabigarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.»

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalaren egunean, eta adierazten dut transkribatutako erabakia jasotzen duen akta Jaurlaritzaren Kontseiluak egingo duen hurrengo bileran aurkeztuko dela ontzat emateko.

OLATZ GARAMENDI LANDA, CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL GOBIERNO

CERTIFICO:

Que en el Acta correspondiente a la Sesión del Consejo de Gobierno celebrada el día 22 de noviembre de 2022, consta entre otros, la aprobación del siguiente Acuerdo:

ACUERDO POR EL QUE SE APRUEBA EL INCREMENTO ADICIONAL DEL 1,5%, PARA EL AÑO 2022, DE LAS RETRIBUCIONES DEL PERSONAL AL SERVICIO DEL SECTOR PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI. (EXP. 2022/01208) (A/20220474)

La Ley 11/2021, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2022, establece las retribuciones del personal al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El apartado 1 del artículo 19 prevé que, sin perjuicio de las disposiciones que con carácter básico se puedan dictar en relación con los gastos del personal al servicio del sector público, en el año 2022 las retribuciones anuales íntegras del personal al servicio de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi no sujeto a régimen laboral no podrán experimentar un crecimiento global superior al 2% con respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2021, en términos de homogeneidad para los dos periodos de comparación, por lo que respecta tanto a efectivos de personal como a la antigüedad y al régimen de jornada del mismo.

El apartado 5 del artículo 19, dispone que las retribuciones básicas a percibir por el personal no sujeto a régimen laboral serán las que estén vigentes a lo largo del ejercicio presupuestario conforme a las normas reguladoras del régimen de retribuciones básicas del personal funcionario. Con respecto al personal sometido a régimen laboral, el apartado 9 del mismo artículo establece que, en 2022, la masa salarial se podrá incrementar hasta un 2% con respecto a la establecida para el ejercicio 2021 de las administraciones públicas.

Los apartados 13 y 14 del artículo 19, establecen el mismo incremento, para las retribuciones del Lehendakari, consejeros y consejeras, altos cargos y asimilados, así como respecto a las retribuciones del personal eventual.

El apartado 1 del artículo 22 prevé este mismo incremento para las retribuciones del personal directivo de los entes públicos de derecho privado, sociedades públicas, fundaciones y consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno, adoptado en su sesión celebrada el día 22 de febrero de 2022, se autorizó la aplicación, con efectos de 1 de enero de 2022, de un incremento retributivo del 2% con respecto a las retribuciones establecidas a 31 de diciembre de 2021, para el personal al servicio de Administración General, organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como del Lehendakari, consejeros y consejeras, altos cargos y asimilados, personal eventual y personal directivo, así como el incremento de un 2% de la masa salarial del personal sometido a régimen laboral al servicio del resto de entes del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con respecto a la determinada a 31 de diciembre de 2021.

Los incrementos anteriormente citados han de ser realizados sin perjuicio de las disposiciones que con carácter básico se dicten en relación con los gastos del personal al servicio del sector público. En concreto, hay que tener en cuenta la normativa presupuestaria regulada en la ley 22/2021, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2022, y la regulación contenida en el Real Decreto-ley 18/2022, de 18 de octubre, por el que se aprueban medidas de refuerzo de la protección de los consumidores de energía y de contribución a la reducción del consumo de gas natural en aplicación del «Plan + seguridad para tu energía (+SE), así como medidas en materia de retribuciones del personal al servicio del sector público y de protección de las personas trabajadoras agrarias eventuales afectadas por la sequía. Este Real Decreto-Ley, en su artículo 23 establece con carácter básico, que adicionalmente a lo dispuesto en los capítulos I y II del título III de la Ley 22/2021, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2022, y demás preceptos concordantes, con efectos de 1 de enero de 2022 las retribuciones del personal al servicio del sector público experimentarán un incremento adicional del 1,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2021, incremento adicional que se aplicará sobre las retribuciones vigentes el 31 de diciembre de 2021, y de conformidad con las siguientes reglas:

1.- Se aplicará sobre las retribuciones vigentes al 31 de diciembre de 2021, de forma que la suma de ambos incrementos consolidará un incremento retributivo global máximo del 3,5% para el ejercicio 2022.

2.- Se materializará en la nómina de noviembre 2022, abonándose como atrasos el incremento correspondiente a los meses de enero a octubre de este año.

3. – En el ámbito de las comunidades autónomas y entidades locales se tendrá que materializar el pago antes del 31 de diciembre de 2022 y, en todo caso, con anterioridad al 31 de marzo de 2023.

Por otra parte, en el seno de la Mesa General de Negociación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, celebrada con fecha 21 de octubre de 2022, se ha tratado el incremento anterior, en el punto del orden del día: «Marco presupuestario referido al personal y a la negociación colectiva año 2023, en el proyecto de Ley de Presupuestos Generales de la CAE».

Por último, el artículo 5.1.g) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca dispone que corresponde al Gobierno Vasco establecer anualmente las normas y las directrices para la aplicación del régimen retributivo del personal funcionario y las condiciones salariales del resto del personal al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma.

Por ello, procede elevar al Consejo de gobierno para su aprobación el incremento adicional del 1,5% de las retribuciones del personal al servicio del sector público, a partir del 1 de enero de 2022, que se suma al aumento del 2% aprobado anteriormente, lo que hace un incremento total de 3,5%, respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2021.

Por cuanto antecede, a propuesta de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno y previa deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente:

ACUERDO

«Primero.– Aprobar el incremento adicional del 1,5% de las retribuciones del personal al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a partir del 1 de enero de 2022. Este incremento sumado al aumento del 2% aprobado anteriormente, hace un incremento total del 3,5%, respecto a las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2021.

Segundo.– El personal funcionario y estatutario de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi percibirá las retribuciones básicas siguientes:

a) En concepto de sueldo y trienios, en las nóminas ordinarias de enero a diciembre de 2022, las cuantías referidas a doce mensualidades que se recogen a continuación:

Grupo/ Subgrupo	Sueldo (euros)	Trienios (euros)
A1	15.082,68	580,56
A2	13.041,72	473,40
B	11.400,24	415,32
C1	9.792,12	358,32
C2	8.149,80	243,96
E	7.459,20	183,60

b) En cada una de las pagas extraordinarias de los meses de junio y diciembre en el año 2022, en concepto de sueldo y trienios, los importes que se recogen a continuación:

Grupo/ Subgrupo	Sueldo (euros)	Trienios (euros)
A1	775,61	29,86
A2	792,63	28,76
B	821,10	29,93
C1	705,28	25,78
C2	672,96	20,12
E	621,60	15,30

Tercero.– La cuantía del complemento de destino en el año 2022, referido a 12 mensualidades y correspondiente a cada nivel de puesto de trabajo, será la siguiente:

Nivel	Cuantía anual (euros)
30	18.926,64
29	16.823,40
28	15.036,00
27	13.353,72
26	11.776,68
25	10.199,64
24	9.568,68
23	8.885,40
22	8.254,32
21	7.623,84
20	7.098,24
19	6.677,40
18	6.256,92
17	5.888,28
16	5.520,60
15	5.152,68
14	4.784,88
13	4.416,48
12	4.048,80
11	3.680,76
10	3.388,44
9	3.145,32
8	2.950,56

Cuarto.– La cuantía del complemento de destino en el año 2022, referido a 12 mensualidades y correspondiente a cada nivel de categoría de la Ertzaintza, será la siguiente:

Nivel	Cuantía anual (12m)
1	7.625,40
2	8.572,56
3	9.006,36
4	11.672,28
5	12.590,52
6	14.622,24
7	15.490,32

Quinto.– Las restantes retribuciones complementarias del personal funcionario se incrementarán, así mismo, en un porcentaje del 3,5% desde el 1 de enero de 2022, todo ello en relación a las vigentes a 31 de diciembre de

2021, y sin perjuicio de las modificaciones que se deriven de la variación del número de efectivos asignados a cada programa, del grado de ejecución de los objetivos fijados para el mismo y del resultado individual de su aplicación.

Sexto.– Las retribuciones del Lehendakari, Consejeros y Consejeras, Altos Cargos y asimilados, desde el 1 de enero de 2022, serán las siguientes:

	Sueldo Mes (euros)	Retribución total (euros)
PRESIDENTE/PRESIDENTA	7.893,96	110.515,44
VICEPRESIDENTE/VICEPRESIDENTA	7.412,55	103.775,70
CONSEJERO/CONSEJERA	7.036,84	98.515,76
VICECONSEJERO/VICECONSEJERA	6.368,50	89.159,00
DIRECTOR/DIRECTORA	5.430,58	76.028,12
VOCAL COJUA	5.430,27	76.023,78
PENSIONISTA LEHENDAKARI	3.946,99	55.257,86
PENSIONISTA CONSEJERO/CONSEJERA	3.518,44	49.258,16

Séptimo.– Las retribuciones del personal eventual se incrementarán en un 3,5% desde el 1 de enero de 2022 en relación a las vigentes a 31 de diciembre de 2021, sin perjuicio de las que pudieran corresponderles por concepto de antigüedad.

Octavo.– Las retribuciones del personal al servicio de la Administración de Justicia se regirán por su normativa específica.

Noveno.– Las retribuciones del personal laboral al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de sus organismos autónomos y del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza-Servicio vasco de salud se incrementarán un 3,5% desde el 1 de enero de 2022, en relación a las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2021.

Décimo.– La masa salarial del personal sometido a régimen laboral al servicio del resto de entes del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi no podrá experimentar un incremento superior a un 3,5% desde el 1 de enero de 2022, en relación a las vigentes a 31 de diciembre de 2021.

Lo previsto en el párrafo anterior representa el límite máximo de la masa salarial correspondiente a 2022, cuya distribución y aplicación individual se producirá a través de la negociación colectiva.

Undécimo.– Los complementos personales y transitorios, así como las indemnizaciones por razón del servicio se regirán por sus normativas específicas, no pudiendo incrementarse sus cuantías individuales por encima

de un 3,5% desde el 1 de enero de 2022, todo ello en relación a las vigentes a 31 de diciembre de 2021.

Asimismo, se exceptuará de lo dispuesto en el presente Acuerdo aquellos conceptos retributivos cuyo régimen, de conformidad con la normativa que le sea de aplicación, excluya su actualización a través de la aplicación del incremento retributivo de carácter general.

Duodécimo.– Publicar el presente Acuerdo en el Boletín Oficial del País Vasco.»

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, en Vitoria-Gasteiz, en la fecha de su firma digital, haciendo constar que el Acta donde figura el Acuerdo transcrito, será sometida a la aprobación del Consejo de Gobierno en su próxima reunión.